

3.zbk

1999ko otsaila

NON ZER

2,3.....Iritzia

4,5.....Betagarri

6,7.....Komikiak

8.....Euskara  
Batzordea

9.....Down  
Sindromea

10.....Literatur  
Txokoa


11.....Gomendioak  
Eztia baino goxoago

12.....Denborapasak


Erdian: 1998-99 ikas-  
turteko argazki bildu-  
ma

# EKIBERRI

EKIALDE INSTITUTUKO ALDIZKARIA



**h**iri  
**EUSKARAZ!!**  
Ekialdeko euskara batzordea



## EUSKERAZ BIZI !!

Ez al dakizu euskera dela euskaldun egiten gaituena?

Euskarak ez dauka anai-arrebarik munduan. Oso hizkuntz bitxia da, penintsulako hizkuntz zaharrena, alegia. Francoren erasoan gaintetik, euskara aurrera atera zen hizkuntza dugu, baina hala ere lurraldetasuna galdu zuen. Beraz, orain, gu gara normalizazioa lortu dezakegunok.

Gizarteak ere euskararen normalkuntzarako parte hartu du: euskararen garapen osoaren alde bultzatzen ari den "Bai euskarari" akordioa sinatzeko prest hamabost erakunde agertu dira dagoeneko.

Gure hizkuntza ez da ofiziala Euskal Herri osoan. Nafarroako hegoaldean, zein iparraldean, ez daukate euskaraz ikasteko eskubiderik.

Euskararen etorkizunarentzat oso garrantzitsua da guztiok parte hartzea, gure esku dago konpromezua indarrean jartzea. Gure helburua euskararen erabateko garapena da. Ikastetxe euskaldunetan borroka ez da amaitu. Gaztelera da nagusi hauen pasabidetan, eta etengabeak dira espainolisten erasoak.

Badakigu zaila dela, ohitura falta daukagulako, baina saiatu behar gara lortu arte. Ikasleok euskararen alde egin behar dugu.

Euskara bihotzean dugu, baina erdera ezpainetan, batzuentzat oso luzea baita bihotzetik ahorako bidea.

Ikasleok euskaraz bizitzeko konpromezua jaso eta praktikan jarri behar dugu, ikastetxean giro euskaldun bat egon dadin. Indarrez eta uneoro, helburu txiki horiek lortu behar ditugu.

B eta D ereduetan ikasten ari garenez, gure betebeharra da euskeraz hitz egitea, bestela A erdua aukera dezakegu. Euskalduna bazara hitz egidazu euskakaz! Hau da, erderaz hitz egiten duena, espainola da. Euskal Herrian euskaraz! Hizkuntza bat ez da galtzen dakienak ikasten ez duelako, baizik eta dakigunok erabiltzen ez dugulako. Hemen euskeraz hitzegiten ez dutenak, jakin arren, ez digute uzten euskaraz egiten.

**JO TA KE EUSKARAREN ALDE!!  
GUZION ARTEAN LORTUKO DUGU!**

*Rakel, Jaione eta Sandra*

Zuzendari agurgarria:

Prentsa Tailerreko hiru ikasle gara eta eskutiz honen bitartez klasean armairuak, hiztegiak, hiztegi entziklopedikoak, e.a. falta direla adierazi nahi dizugu.

Bestalde, egunero etxera izigarrizko pisua daramagu, liburuak lapurtzearen beldurrez. Gainera, parrilan ez dira liburu guztiak sartzen, eta batzutan arazoak ditugu denak sartzeko.

Hau gerta ez dadin, klasean armairuak jartzea eskatzen dugu ahal bada atekin liburuak agerian ez uzteko. Arazo hau tutoreei azaldu diegu kurtso hasieratik, baina beti esaten dute ailega-tzeko zorian daudela. Alde honetatik, zuen partetik interes gehiago nahi dugu.

Gure eskaera kontutan izango duzuelakoan, agurtzen gara.

*Maidier, Zahara eta Alberto*

Zuzendari agurgarria:

Ekialdeko 3.G-ko hiru ikasle gara eta eskutiz hau bidaltzen dizugu geure iritzia emateko.

Irakasle bat klasera faltatzen denean, zergatik etorri behar da beste irakasle bat zaintzera?

Guk uste dugu irakasle bat etortzen ez denean, ordu librea izan behar dugula, beste institutuetan bezalaxe. Denbora luze batean irakasle hori ez balitz etorriko, normala litzateke zaintzailer bat edo ordezkoren bat etortzea, baina egun bakar bat faltatuz gero, ez.

Besterik gabe, gure iritzia kontutan hartuko duzula jakinik, agurtzen dira:  
*Ion, Edurne eta Eider*

Zuzendari agurgarria:

4.F-ko hiru ikasle gara , eta arazo bat jakinarazi nahi dizugu.

Azkenaldi honetan komunak oso zikinak daudela konturatu gara . Batetik ez dago paperik , xaboirik , ezta ispilurik ere. Bestetik, eta garrantzitsuena, zisterna ez dabilela . Gainera, gure ustez, instituto batean komun gehiago egon beharko lirateke ikasle eta irakasle ugari gaudelako, edo, gutxienez, daudenak garbiak egotea ezinbestekoa litzateke.

Besterik gabe gure iritzia kontutan hartuko duzulakoan agurtzen zaitugu.

Aintzane, Amaia eta Ainara

Zuzendari anderea:

Instituto honetako 4.mailako hiru ikasle gara.

Lehenengo eta behin adierazi nahi dizugu orain dela hilabete bat gutxi gora behera berogailurik gabe egon ginela denbora luze batean.

Denboraldi horretan klasean hotz haundia pasatu genuen eta batzutan txamarrarekin egon behar izan genuen hotza ez pasatzeko.

Gure ustez, arazo larria da eta berriro ez gertatzea espero dugu.

Agur bero bat, eta beste bat arte.


## INKESTA

- 1.-Zer pentsatzen duzu komunitan izan diren arazoetat?**
- 2.-Ze konponbide bilatuko zenuke zuk komunen arazoak konpontzeko?**
- 3.-Zer iruditzen zaizu orain dela denboraldi batean berogailuekin gertatutakoa?**




ANDONI 4.B

- 1.-Gaizki iruditzen zait komunitan erretzea usain txarra gelditzen delako. Gainera eta garrantzitsuena, komunak oso zikinak daude.Nire ustez, ispilu gehiago jarri beharko lirateke, irakasleen komunitan bezalaxe.
- 2.-Konponbide bat izango litzateke komun gehiago ipintzea pisu bakoitzean eta ongi garbitzea.
- 3.-Gabonetan etorri ginenean berogailuak ez zeuden piztuta eta lehenengo aldian jarri zutenean usain txarra sortu zen klase barruan.



ITZIAR 4.F

- 1.-Ba institutua itxi beharko luketela urik ez dagoenean . Gainera oso zikin daude.
- 2.-Institutua itxiko nuke eta iturgin batzuei deituko nieke dena konpontzeko.
- 3.-Klasera ez ginela etorri behar, zeren ez da normala klasea ematea hotza egiten duen bitartean.Gainera, eskularruekin.idatzi behar genuen.



JON.A. 4.F

- 1.-Oso gaizki dagoela komunak hain zikin egotea eta gainera iturginek aldatu beharko lituzkete.
- 2.-Gehiago garbitzea eta iturginak aldatzea.
- 3.-Nire ustez berogailuak kalitate txarrekoak dira, eta urte asko dituztenez, arazo larriak sortzen dira eta horregatik aldatu beharko lituzkete.

# BETAGARRI

## GERO ETA OSPETSUAGO



***Izugarrizko gorakada izan du azken urte hauetan, gazteei asko gustatzen zaie eta arrakasta handia euki du.***

***Gasteiztarrak dira, eta haiekin egon gara elkarrizketa bat egiten.***

**Nola bururatu zitzaizuen talde bat sortzea?**

AITOR: Kuadrilen artean atera zen ideia, hasi ginen jotzen, ba hori, "pa pasar el rato".

Azkenean sartu zen jende gehiago eta montatu genuen taldea.

**Nondik atera zenuteen Betagarrirri izena?**

GONTXO: Daukagu lagun bat lehen jotzen zuen...

AITOR: Hasi ginen txalaparta eta alboka jotzen.

GONTXO: Bai, ni alboka jotzen nuen, lehen maketan agertzen den alboka nirea da. Beno, lagun horren aitona, beti Betagarri erabiltzen zuen

Kanpezo aldean, "Kaña emateko", sua pizteko, hori da Betagarri. Karbonera zen Tasio pelikulan agertzen da. Jo ta ke erabil daiteke.

AITOR: Taldea egin baino lehen gure kuadrilla Betagarri deitzen zen eta jaietan edo inhauterietan agertzen ginen pankarta batekin.

**Zenbat urte daramazue talde honekin?**

UNAI: Gutxi gora behera sei urte daramagu.

**Zenbat denbora kostatu zitzaizuen disko bat ateratzea?**

IÑAKI:Asko,asko,asko urtebete.

UNAI:Bai zera! hiru urte, edo lau,... Maketa egitea sei hilabete kostatu zitzaigun.

**Zenbat kostatzen zaizue abesti bat asmatzea? Nondik asten zarete?**

UNAI:Depende. Askotan ateratzen dira egun batean. Adibidez:Araba Euskarako eskatu ziguten bat, eta igual egoten zara hiru egun ze edo zer atera nahaietan eta ez da ezer ateratzen, eta egun batean, atera zen ensaio baten amaieran.

IÑAKI:Norbaitek ideia argiak baldin baditu abesti bat ateratzeko, edo baju linea bat edo melodia bat argia dagoena eta hori saiatzen gara horren gainean lan egiten, eta normalen horrela ateratzen dira.

UNAI:Hilabete bat edo bi, inspirazio,hilabete batean atera duzu lau abesti, eta sei hilabetean bat. Nahi duzunean ez da etortzen inspirazioa, batzutan bai, baina...

**Zein da daukazuen abestirik gogokoena? Zergatik?**

UNAI: "El corazón partio" (ja, ja, ja).

**-Ez baina zuena.**

GONTXO: "El que no se agache". (ja, ja, ja.)

UNAI: Bakoitzak bat. Ez dago bat guztien gustokoa izatea, normalean azkena da, ba, berriena delako. Zeren denok

gaude hor, jo ba ezin hobea dago eta hiru hilabeteetara... Hori modak dira, pasatzen zaizu, gero bat, gero bestea. Ateratzen genuen azkena I.A.-koa esaten genuen, jo ba"de puta madre" eta ya ez zaigu gehiegi gustatzen. Hasten zara faioak ikusten eta...

**Ondo konpontzen zarete zuen artean?**

AITOR: Ez, (ja, ja, ja)

UNAI:Betri gaude ohiukatzen,osea que horrek esango du ondo eramango garela. Ba ongi bestela ez ginatke henen egongo. Bai, ongi, ongi.



**Kontzertu bat egin ondoren, zer egiten duzue?**

IÑAKI: Bronkak bota, eta etxera.

GONTXO: Edan eta ahaztu.

UNAI: Deskargatu, hori dela politena; jotzearen politena, deskargatzea dela. Ona etorri

goizeko bost-etan, hemen sartu guztia eta etxera. Hori egiten dugu. Zeren normalean hurrengo egunean beste kontzertu bat daukagu.

**Zein da zuen ustez talderik onena?**

IKER: Ez dago onena, gustokoena baizik. Hau ez da lasterketa bat, musika ez da konpetizio bat.

**Zer nolako jendea joaten da zuen kontzertuetara?**

UNAI: Zuek bezalako jendea.

IÑAKI: Denetarik dago, joan den egunean aek egunean, aurrekaldean zeuden hamabost urteko jendea, eta atzekaldean adin gehiago duen jendea.

**Hasi zarete zuen hurrengo diskaren abestiak sortzen?**

GONTXO: Ez, ez, daramagu uda osoa jotzen, eta ikusiko dugu ea noiz hasten dugun.

**Zuen abestiak konposatzera-koan, beste taldeen musika influitzen dizue ala bakarrik zuen estilo propioaz gidatzen zarete?**

UNAI: Entzuten dugun guztiak eragina dauka zuengan, hori argi dago.

AITOR: Baina agian gehien bat, saiatzen gara ahal duguna egiten, zeren agian badaude gauza asko entzuten dituzunak, baina ez zara kapaz egiteko, ez dakit.

**Andoni Orozko eta Amaia Santa Engracia**









## EKIALDEN

## EUSKARA BATZORDE BERRIA


Ekialden euskararen erabile-  
raren egoera ikusi ondoren, euskara-  
ren aldeko batzorde bat sortzea era-  
baki da. Batzorde hau sortzea, bi  
ikasleren eta irakasle batzuren ideia  
izan da.

Ekialden euskararen egoera  
ez da behar bezalakoa, ez bakarrik  
gure artean errekreio orduan euska-  
raz ez hitzegiteagatik, baizik eta ira-  
kasleekin ere, beraiek euskaraz hit-  
zeginagatik, askok eta askok  
erdaraz erantzuten diegulako.

Hasiera batean, klase guztie-  
tako delegatuak bildu ziren ideia  
honen berri emateko, eta aldi berean,  
delegatuek beren klaseko kideei  
jakinarazteko.

Batzordearen helburua, eus-  
kara bultzatzea izango da, bai institu-

tuaren barruan, bai kanpoan, euska-  
ra Euskal Herriko hizkuntza delako,  
eta haren iraupena eta Ekialde insti-  
tutuko etorkizuna gure eskuetan  
dagoelako. Gu geu gara  
etorkizun hori landu  
behar dugunok, gu  
ez bagara  
hasten,  
inork



Batzorde honetan nahi duten  
irakasle, ikasle eta guraso guztiek  
parte hartu ahal izango dute, horrela  
guztion artean ideia eta proiektu  
berriak martxan jarri ahal izango ditu-

gu eta.

Martxan jarriko den lehenen-  
go proiektua, pegata batzuk aterat-  
zea izango da. Pegatina hauetan  
"NIRI EUSKARAZ!" hitzak azalduko  
dira idatzita, irakasleek klasean  
behin eta berriz errepikatzen dituzten  
hitzak direlako. Pegata hau nahi  
duen guztiak eramango du, eta  
eskatzen den bakarra, hitzak ekintze-  
kin bat etortzea izango da. Hau da,  
pegatina eramaten baduzu, behintzat  
euskara izatea mintzatzen duzun hiz-  
kuntza, gutxienez institutuan, klase-  
an, eta baita errekreoetan ere.

Idatzi honen bidez gustatu-  
ko litzaiguke guztioi batzorde honen  
jaiotzaren berri ematea, eta jakina-  
raztea guztion esku dagoela gure  
hizkuntza berrezkuratzea eta berriro  
ere kaleetan nahiz etxeetan entzu-  
tea.

### 1.-Zerk bultzatu zintuzten inizatiba hau aurrera eramatera?

### 2.-Nola ikusten duzue Ekialden euskararen egoera?

### 3.-Pegataren proiektuaz aparte, beste edonolako proiekturik baduzue aurrera eramateko?

1.- Hona etorri baino lehen, nengoen zentruan, Euskara  
Batzorde bat zegoen, eta hona etortzean, erabat harritu-  
rik geratu nintzen, hemen ez zegoelako, eta ni, zentro  
guztietan egongo zelakoan nengoen. Beraz, hasiera  
batean, ideia hor geratu zen, baina, geroago, I.A.koak  
etorri ziren euskara bultzatzeko zeozer egin nahian.  
Beraz, gure asmoa berbera zenez, elkartu egin ginen.

2.- Zentru honetan, abantaila bat dago: B eta D ereduak  
daude soilik, beraz, edonori edozer euskaraz galdetzen  
badiozu, badakizu ulertuko dizula behintzat. Baina gero,  
ikasleen artean, kalean... ez dute erabiltzen eta hori  
penagarria da. Beste leku batzutan, batxilergora iristean,  
gehiago kontzientziatzen dira.

3.- Ikasleen artean biltzea eta ideiak eraikitzea, eta,  
klase bakoitzean, talde finko bat egitea non pertsona  
horiek beti euskaraz egingo duten. Beste ideiei bat hau lit-  
zateke, NOLEGA-ri (euskara bultzatzeko taldea) arazoa  
azaldu eta hortik diru laguntza eskuratu.

Inma Martín, irakaslea.

## INKESTA

1.-Euskararen egoera tamalgarria da Ekialden, eta ia ia  
ez da erabiltzen klaseetan, eta egoera hori aldatzeko  
sortu dugu batzorde hau.

2.- Ekialden, euskararen egoera nahiko latza da, jende-  
ak euskara bihotzean darama baina ez ahoan, jendeak,  
harro-harro esaten du euskalduna dela, baina gero  
haien hizkuntza alde batera uzten dute.

3.- Bai, datorren urtean, kurtso hasieran Eusko  
Jaularitzari diru laguntza eskatu behar diogu proiektu  
berri batzuk aurrera eramateko, festak, txangoak...

Asier Otxoa eta Gorka Betolaza, 4.H.



# PERTSONAK DIRA , EZ JOSTAILUAK

D.B.H. ezarri denetik ikastetxeetan aniztasuna da nagusi, eta mota ezberdinetako pertsonak aurki ditzakegu. Gaztetxoak zein helduagoak direnak, arazo fisikoak nahiz psikologikoak dituztenak, eta azken hauen artean "DOWN SINDROME A" jasaten

dutenak ditugu.

Gai honi buruz gauza handirik ez dakigunez gero , honako hau baliagarri izan liteke arazo honi hurbiltzeko. Hemen biltzen diren hitzak, ETXEBIDE zentru espezializatuko langile bati egingdako elkarrizketa batetik jasoak dira.



Blanca, ETXEBIDE eskolako langilea da. Urte asko darama zeregin honetan eta ondo ezagutzen ditu Dawn sindromearen inguruko gorabehera guztiak.

Berak adierazi digunez, azken urte hauetan jende ugari prestatzen ari da honelako lan bat egiteko.

Normalean, klinika bateko laguntzaile bezala hasten dira, baina gero, pixkanaka-pixkanaka, gai konkretu honetara hurbilduz doaz: puerikultura, atzeratu larriak ( deficientes profundos), ...

Emakume honek jakinarazi zigunez, gaixotasun hau hainbat arrazoi-rengatik sor daiteke . Alterazio kromosomiko bat izaten da gehien bat ematen dena, baina badaude beste kausa batzuk ere : erditzerakoan oxigeno falta , traumatismoak, kolpeak edo anestesia neurritz kanpo erabiltzea.

.Mota honetako zentru gehienetan sei urtetik gorakoak egoten dira. Orokorrean, horrelako zentruetan sartzan dituzte erasotzaileak nahiz kapazitate txikikoak direlako eta ezin direlako ikastetxe arrunt batean sartu. Ondorengo azpimarratu zuen

Blancak: "Zorionez badaude ikastetxeetan egoten direnak. Badakit zuen institutuan, Ekialden, hau gertatzen dela eta hori eskertzekoa da."

Blancak azaldu zigunez, "zentru honetako laguntzaileek egun osoan zehar eskeintzen diete edozein motatako laguntza, atzeratu larriak direlako. Langileek beraien ondoan egoten dira gaixoen garbiketarako, jatorduetan, aktibitate ezberdinak egiteko,..."

Batzuk oso lasaiak dira eta beste batzuk, ordea, hiperaktiboak, hau da, mugimendu asko daukate. Erasokorrek izan daitezke, baina portzentaia txikia izaten da.

"Bizitza arrunt batean gertatzen den moduan, beren arteko borrokatxoak edukitzen dituzte. Gu erasotzea arraroa da, gurekin oso maitagarriak direlako."-adierazi zigun Blancak .

Jakinerazi zigunaren arabera, Down sindromedun hauekin gizar-teak duen jarrera harriztekoa da zenbait kasutan : Jendea ez dago ohituta pertsona hauek taldeka ikusten, horrexegatik leku publikoe-

tatik botatzen dituzte, arreta deitzen duelako beraien fisikoak : aurpegietako deformazioak , mugikortasuna, etab....

Guztiok bezala, beren trebetasunak eta zaletasunak dituzte. Gehien gustatzen zaiena jatea da, baina badaukate beste gusto batzuk ere: musika entzutea, dantzatzea, taillerak egitea,...

ETXEBIDE zentruan ordu konkretu batzuk dituzte, gehiengoak erreabilitatzeko eta beste batzuk aisialdirako. Beren oporraldiak ere badituztela adierazi zigun Blancak.

Asteburuetan bisitak edukitzen dituzte eta hilabete bat oporretarako erabiltzen dute ( gabonak, Aste Santua,...)

"Oso gustora nago lan hau egiten eta jendea animatzen dut pertsona hauetaz arduratzeko. Gauza sinple batekin lortu dezakezulako beraien alaitasuna, oso erreza bait da hauen maitasuna lortzea". - bukatu zuen Blancak pozik..

**Egin diezaiegun bizitza errezagoa haienganako jarrera hobetuz.**

**Ez ditzagun baztertu, beraiengandik ere ikas dezakegu eta.**

**Ez ditzagun jostailu bezala hartu, beraiek ere pertsonak bait dira eta sentimentuak bait dituzte.**

EDURNE  
MAITE  
PATRICIA  
4.D eta 4.E



Lagun maitea ,  
arazoren bat daukazunean ,  
niri esan ,  
niri kontatu ,  
nirekin negar egin.,

Lagun maitea ,  
zauri bat daukazunean ,  
nitaz gogoratu ,  
sendatzen ahaleginduko nahiz eta .

Lagun maitea ,  
dena zulo beltz bat bezala ikusten duzunean ,  
nire iluntasunarekin elkartu ,  
sua emango diegu, eta  
uso zuri bihurtuko da .

Lagun maitea ,  
bihotza dardarka hasten zaizunean ,  
nik lagunduko zaitut eztanda ez egiteko ,  
dana pikutara ez joateko .

Lagun maitea ,  
ez ahaztu nitaz ,  
hemen nago, eta!  
nigana etorri, mesedez .

Lagun maitea ,  
biok bat egingo dugu ,  
ilargia eta izarrak  
gaua sortzen duten moduan .

Lagun maitea ,  
betidanik eta betiko ,  
zurekin nago ,  
zure ondoan ,  
ez zaude bakarrik!

EZ AHAZTU, BIOK BAT!!!

Itziar Salinas "SASA"

ODA A LA CAMA

La cama, testigo de todos mis sueños,  
de mis penas y mis lloros.

La cama, que no tiene ojos, pero todo lo ve.  
Que no tiene oídos, pero que escucha  
atentamente.

Que no tiene boca, pero bien aconseja.  
Ella presencia nuestras noches de locura.  
Cuando nuestro frenesí se desata, cuando la  
pasión se escapa, por cada  
poro de nuestra piel...

Es todo tan intenso.

Y la pobre, presencia todo eso, en silencio, sin  
decir nada.

Quieta, sobre sus cuatro patas.  
Cuando la desnudamos le cambiamos la piel.  
Tiene tripas de acero que le aguantan todo.  
¡Incluso cuando nos peleamos usando su  
cabeza de escudo, se versigua y aguanta!  
Qué compañero de batallas.

Cada noche nos metemos bajo su piel,  
para que nos caliente.  
¡Ay! ¡Y cuantas veces habremos saltado sobre  
ella!

Pobre cama, compañera de la vida.  
¡No llores, que ahora voy a hacerte compañía!

Ana Bergal (2.E)

Ai ene,bizitzaren tantak!!!  
Tanta bat,zauria.  
Bi tanta,gaua heltzen da.  
Hiru tanta,negar egiteko aitzakia.

Ai ene,bizitzaren tantak!!!  
Tanta bat,zorioneko gauzak.  
Bi tanta,eguna iristen da.  
Hiru tanta,farre egiteko ordua da.

Ai ene,bizitzaren tantak!!!  
Tanta bat,lagunak.  
Bi tanta,familia.  
Hiru tanta,hasierara bueltatzeko momentua.

Itziar Salinas  
"SASA"





MUSIKA



ZINEA



LIBURUAK

## SEPULTURA

DISKOGRAFIA

**Bestial Devastation** (1985)

**Morbid Visions** (1986)

**Schizophrenia** (1987)

**Beneath**

**the Remains** (1989)

**Arise** (1991)

**Chaos A.D.** (1993)

**Roots**(1996)



Talde hau Belo Horizonte herrian (Brasil) jaio zen 1984an

Death Metal jotzen hasi zen, baina gero bere estilo propioa lortu zuten. Orain beste diska berri bat atera dute, AGAINST izenekoa. Diska hau bere ahotsa berriarekin grabatu dute, Derrick Greene, taldeari berriro agresibitatea emanaz. ROOTS super diska eta gero, Against bere azken esfortsua, iadanik diska historiko batean bilakatu da.



## Snake eyes (Ojos De Serpiente)

Zuzendaria: Brian de Palma  
Aktoreak: Nicolas Cage, Cary Sinise, Carla Gugino.

Atlantic City-eko kasino batean boxeo borroka bat antolatzen da eta bertan Estatu Batuetako Defentsa Idazkaria hiltzen dute. Kasu hau Rick Santoro-ren (Nicolas Cage) menpe dago. Nicolas Cagerek bira berri bat ematen dio bere interpretazio lanari, polizia baten papera betetzen bait du pelikula honetan. Brian De Palma-ren eskuz filme hau thriller izugarri batekin aurkezten da.

## EL JARDIN SECRETO

Mary neska bat da eta bere etxeko guztiak edo gehienak epidemia baten ondorioz hiltzen dira. Egoera horretan, bera, bere osabaren etxera joaten da bizitzera eta han lagun berri bat egiten du. Biak elkarrekin egunero ateratzen dira etxe ondoko zelai handietatik. Egun batean, Jardin sekretu bat aurkitzen dute eta geroztik, bertan pasatzen dute ahal duten denbora guztia. Gauero Maryk mutil baten negarrak entzuten ditu... Liburua intrigazkoa da baina oso interesgarria da.

## MIL A GRITOS

Diska rekopilatorio honetan, "Mil A Gritos" izenpean, talde askok hartzen dute parte. Bereziki S.A., Flitter, Anarko, Salvate Si



Puedes, Habeas Corpus, Orujo de Brujas, Betagarri eta Ekon.

Talde bakoitzeko bi abesti agertzen dira. Diska honetan musika mota ugari entzen daiteke:

Rock, Heavy Metal, Hip Hop, Rap, Ska...

*4. Fko Ainara Paul maitea:  
Betidanik nire bihotza piztu duen bakarra izan zara, eta betiko nirekin eramango zaitut nire bihotzean bait zaude.*

*Estibaliz N.:  
Espero dut nor naizen jakitea, zurekin denbora asko pasa bait dut. Gustatuko litzaidake zu eskalatzea, zure espainetara iritsi arte.*



*Pepi maitia:  
Zure klaseak ikastetxe honetako onenak dira. Baina, noiz jarriko zara gaixorik, demontrare!!!*

# Eztia baino gozoago


*4. G-ko Abel maitia:  
Zure txisteak izugarri gustatzen zaizkigu, baina ez dira txisteengatik, zure kontatzeko moduarengatik baizik. Jarraitu horrela "PANPOSO".*

**Ez izan lotsatia eta bidali zure mezuak,** datorren 4. alean zure kuttunak irakur ditzake!




# DENBORAPASAK

## GURUTZEGRAMA



- 1.-Aguraingo musika talde gazte bat , urte honetan bere lehengo diska merkatura atera duena.
- 2.-Arabako musika talde zaharrenetariko bat da.
- 3.-Gozoa baina batzutan kalanbreak ematen dizkizuna.
- 4.-Eibar inguruko talde ospetsu eta gar handikoa.
- 5.-Zer behar dugu Euskadin? Gernikako .....eta KITTO!!!!!!
- 6.-Gasteizko ska taldea.
- 7.-"Mendian larrantian aurkitzen da loretxoa..."
- 8.-Bi diska atera ditu eta LAZTANA abestiarekin arrakasta handia lortu zuen.
- 9.-Berriak , onak ala txarrak?
- 10.-1998ko Gasteizko jaietan jo zuen , eta "El marques de txorrapelada" abestia ezagunetariko bat du.
- 11.-Margarita eta txokolatea du gustoko.

## ASMAKIZUNAK



Bost lauki hauetatik hiru marratxo kendu, hiru lauki bakarrik geratzeko. Baina buruko minik izan gabe!

Begiak ixten dizkigu,  
ahoa irekitzen digu,  
eta berari aurre egiteko  
gau bat ez da nahikoa.

Zer ote da?

Jaten du,  
hitz egiten du,  
ohiukatzen du,  
musuak ematen dizkigu.

Ezetz asmatu!

Bakarrik esistitzen naiz  
preso banago,  
askatzen banaute,  
hiltzen naiz.

Zein ote naiz?

## LAGUNTZAILEAK:



**EKIALDERANTZ  
GURASO ELKARTEA**